

LARS BANG LARSEN ETA SOREN ANDREASEN

We Rule the School: Elkarrizketak eta ikerketa mintegian, Lars Bang Larsen eta Soren Andreassen bitartekaritzari buruz aritu ziren batez ere.

Lars Bang Larsen eta Soren Andreassen-en arabera, bitartekariari buruz esan ohi izan da agente konformista eta parasittoa dela, berezkotasunari hegoak moztzen dizkiona. Pertsona kaskarra eta anonimoa da bitartekaria. Jakin beharko lukeena baino gehiago dakieneko susmopean bizi da beti. Bi hitzetan, leku hitsa du bitartekariak jendartean.

Nahiz eta idazle, pentsalari eta artista askok bitartekaritza desagertzea eskatu duten, gizartearen eta kulturaren birsorkuntza sistemaren erdigunean dago gaur egun ere. "Gure eguneroko gauzak egiteko, bitartekariengan inoiz baino konfiantza gehiago dugu gaur egun. Gure bizimodua errazagoa da kazetariei, bankeroei, diseinugileei eta horrelako jendeari esker. Beraz, modernitateak sinestarazi nahi izan digun bezain negatiboa al da bitartekaritza?, neoliberalismoak esaten digun bezain maltzurra?", galdetu zuen Lars Bang Larsenek.



Gizartearen beste eremuetan bezala, gaur egungo arte sisteman inoiz baino garrantzia handiagoa du bitartekaritzak. Artista, izan ere, bere obraren ekoizlea izateaz gain, obra horren bitartekaria ere bada. Gainera, arte obra artistak sinatzen duen arren, jende gehiagok osatutako taldearen izenean sinatzen du gehienetan: teknikari adituak, ekoizpen ondorengo prozesuan lan egiten duen jendea, agerkarietan parte hartzen dutenak... Beste aldetik, komisarioari bitartekaritzaren goren maila aitortu ohi zaio arte munduan. Ibiltari lana egiten du, jende askorekin harremanetan, eta gizarte bizitzan parte hartzen du buru-belarri, artisten, instituzioen eta abarren arteko topaketak antolatuz, topaleku berriak eskainiz.

Bitartekaritzaren definizioak

Bitartekaritzaren kontzeptuak adiera asko ditu. Zabaldunetako baten arabera, "gatazkak kudeatzen dituenari" deitzen zaio bitartekari, baina baita bakea antolatzen edo bakea berrekartzen lan egiten duenari. "Laurogeiko hamarkadako arte munduan, artearen komunikazioa adierazteko aipatzen zen bitartekaritza, baina artearen komunikazio jardueretan zein toki du gatazken kudeaketari buruzko adiera horrek? Zein bitartekaritza mota egiten dute artistek eta komisarioek?" galdetu zuen Lars Bang Larsenek.

“Bitartekaritzaren alde ilunak” deitzen zutena aztertzekeo grina agertu zuten hizlariek, jarduera horren definizio terminoak auzitan jartzea helburutzat hartuta. Bitartekaria hobeto definitzeko, jarduera horren errebaso historiko laburra egin zuten, Fernand Braudel historiagilearen teoriak oinarritzat hartuz. Izan ere, haren teoriaren arabera, kapitalismoaren garapen ardatzetako bat da bitartekaritza. Ikuspuntu hori hizpidetzat harturik, Lars Bang Larsenek eta Soren Andreasenek agerian jarri nahi izan zuten ezinbestekoa dela, bitartekaritza egoki aztertu nahi badugu behintzat, sistema kapitalistan bizi garela ez ahaztea, sistema horrek gure bizitzako alderdi guztiak baldintzatzen dituen gero. Bizi garen sistema kapitalista horrek baldintzatu egiten du halaberrez artearen mundua, eta baita komisarioa ere duen bitartekaritza ere. Baina, zeri deitzen diogu komisario? .

Lars Bang Larsenen eta Soren Andreasenen ustez, galdera ez dago egoki eginda, “komisarioa ez baita berez ezer, zerbait egiten duena bazik, subjektibotasuna egiten duen lanari esker hartzen duena, alegia. Mugikortasuna da komisarioaren ezaugarria, eta horri esker badu esperientziaren kultura, baina ez jakintzarena”. Ez dira batere ohikoak komisarioen lanari buruzko katalogoak edo testuak, eta egiten duten lana argitzeko dauden zailtasunen seinale da hori.

Bitartekaritzaren berezko ezaugarriak definitzeko arazoak dauden arren, artistek, komisarioek eta hartzaileek bitartekaritzaren berezko alderdi batzuk dituzte Soren Anderasenen ustez. Beste pertsona bat bihurtzeko nahia da horietako bat. Izan ere, “artistaren izenak agerian jartzen du lortu ez den subjektibotasuna erdiesteko nahia. Bitartekariari buruz hitz egiten dugunean, bere lanbideari esker hezurramitzen den norbait irudikatzen dugu, eta artistekin ere gauza bera gertatzen da. Ikuspuntu horretatik begiratuta ez dago alderik. Izan ere, komisario-jardueraren eta artegintzaren potentzialtasuna, bitartekaritzaren eraginpean beste pertsona bat bihurtzeko gaitasunaren arabera izango da.

CC

Artikulu hau Attribution-NonCommercial-ShareAlike gisako Creative Commons lizentzia baten mende dago. Banatu eta jende aurrean erakuts dezakezu irabazi asmorik gabe baldin bada. Horrez gain, hemendik eratorritako lanik sortzen baduzu, lizentzia beraren mende egin behar duzu.